

**OARSOALDEA
ESKUALDEKO
INKLUSIO
SAREA.**



ATXIKIPEN-AGIRIA

Akordio honi atxikitzeak honako printzipio eta erantzukizun hauek onartzea dakar:

1. HELBURUA ETA IZAERA

Sarea era batera edo bestera lan-merkatuan sartzeko edo mantentzeko zailtasunak dituzten pertsonen gizarteratzearekin eta laneratzearekin lotuta dauden eragileen koordinaziorako, lankidetzarako eta talde-lanerako gune egonkor gisa ulertzen da, ildo horretan egiten dituzten jarduerak eraginkorragoak eta efizienteagoak izan daitezen edo ingurunera egokitutako erantzun berriak gara ditzaten.

Beraz, Sareak ez du helburutzat hartzen hartzaileei zuzeneko arreta emateko zerbitzuak ematea. Kide diren eragileek beren gain hartzen dituzte hobetu, osatu, integratu... diren egungo eta etorkizuneko esku-hartze prozesuak. Sarearen lan-esparruan sortzen diren aukerei esker.

Sarea ez da berezko erakunde juridikoa duen egitura formal berri bat, baina sarea osatzen duten eragile guztien artean sarearen funtzionamendu eredua zehaztu, esplizitatu eta onartzen da.

Sare honek izaera lokala eta diziplina anitzekoa du, eta elkarrekiko informaziotik eta kontsultatik harago joatea du helburu: izan ere, gizarteratzearen eta laneratzearen arloko premiei buruzko elkarrizketarako gune gisa ulertzen da, eta, batez ere, tresna pribilegiatu gisa, bete gabeko, behar bezala ase gabeko edo zailtasun handiagoak dituzten premiei erantzuteko koordinazioa eta lankidetzeta sustatzeko.

Horrela, sarea eragile bakoitzaren ekintzari buruzko informazioa trukatzeko eta kontsulta egiteko gune egokia bada ere, bere jarduera gogoeta egitea eta elkarrekin jardutea garrantzitsua den lan-prozesuetan edo egoeretan zentratzen da, bai eta sarea osatzen duten eragileen arteko lankidetzeta-esparrua eta -tresnak garatu eta hobetzean ere.

2. EZAUGARRI NAGUSIAK

- **Elkarrizketarako** tresna bat da, eta horrek jarduteko ikuspegiak eta irizpideak partekatzea dakar, erritmoei arreta jarritz eta parte-hartzea zainduz.
- Lankidetzatresna bat da, gizarteratzearen eta laneratzearen arloko ekintza **partekatua** bultzatzea bilatzen duena, dauden lankidetzadynamikak eta -tresnak hobetuz edo beste batzuk abian jarritz.
- Tresna **egonkorra** da, denboran jarraitua, eta sareko kideek une bakoitzean hautemandako beharrei erantzuten die.
- Praktikara bideratutako tresna **operatiboa** da, eta “proiektuak”, ekimenak edo eragileen arteko lankidetzeta eta lan egiteko moduetan aldaketa zehatzak sortzea du helburu.
- **Tokiko/eskualdeko erakundea buru duen eta eraikuntza partekatua duen tresna** da, eta kide guztiek proposatu ahal izango dituzte hausnarketa-edukiak, lan-proiektuak eta abar.
- Tresna **berritzailea** da, gizarte-premiei erantzuteko modu eta eredu berriak probatzea bilatzen duena esperimazioaren bidez, eta, ebaluazioaren ondoren, eskuratutako ikaskuntzak sistematizatu, egonkortu eta transferitu nahi dituen.
- Tresna **eraldatzailea** da, ebidentzietan oinarritutako ikaskuntzak sortzea bilatzen duena, Euskadiko eta bereziki, Gipuzkoako erantzukizun publikoko sistemen esparruan gaur egungo jardun-ereduak aldatzeko orientabideak eman ahal izateko.

3. LANKIDETZARAKO ETA JARDUTEKO PRINTZIBIOAK

- **Erantzukidetasuna gizarteratzean eta laneratzean.** Sareak, era koordinatu eta adostuan, bakoitzaren gaitasunera egokitutako sistema, zerbitzu edo programetatik jarduerak egiten dituzten eragileak biltzen ditu, pertsonen, taldeen edo komunitatearen beharrei eraginkortasunez erantzuteko, laneratu aurreko, enpleguko eta horiei eusteko aukerak sortzeari dagokionez.
- **Sarea osatzen duten eragile guztien arteko lankidetzak eta elkarlana,** enplegu inklusiboko estrategia baterako ezinbesteko eragile gisa elkarri aitortuta. Horrek esan nahi du alderdien artean komunikazio iraunkorra, arina eta eraginkorra dagoela, eta eragile bakoitzaren nortasuna, rola eta ekarpena errespetatzen direla.
- **Tokiko/eskualdeko administrazioak/erakundeak gidatuta,** beharrezko baliabideak bermatuko dituzten administrazio publikoen laguntzarekin.
- **Sarearen eta sarea osatzen duten eragileen egonkortasun eta jarraitutasun konpromisoa.**
- **Profesionaltasuna, eraginkortasuna eta kalitatea,** sarearen funtzionamendua eta emaitzak bermatzeko eragile-multzoaren eskakizun gisa.
- **Konfidentzialtasuna.** Eragileen eta profesionalen arteko lankidetzak erabiltzaileei buruzko informazioa partekatzea eskatzen du, garrantzitsua den guztietan. Informazio hori, askotan, pertsonala eta oso konfidentziala da. Horri dagokionez, oro har, agente publiko eta pribatu guztietako profesionalak datu pertsonalak babesteko araudian ezarritakoa beteko dute.


Sarearen lankidetzak-espazioak eta prozedurak formalizatzearen helburua ez da eragileen artean egon daitezkeen aldeko harremanak edo harreman informalak ordeztzea, baizik eta osatzea.



4. HELBURUAK

Gizarteratze eta laneratze sarearen helburu nagusia parte hartzen duten erakunde guztiek partekatzen duten helburu bat da, eta eskualdeko pertsonen enplegarritasuna eta laneratzea hobetzea da, bereziki zaugarritasun edo zailtasun egoeran dauden pertsonengan eraginez.

Sarearen helburu nagusiak honako hauek izango lirateke:

- 
- Eskualdeko sistema eta baliabide publiko eta pribatu erantzunkideak inplikatzeko eta aliantzak sortzeko, helburu komun eta partekatu batean.
 - Gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen arteko lankidetzaren sustatzea.
 - Langabezian dauden pertsonen egoeraren, ezaugarrien eta beharren diagnostiko komun eta aberastua egitea.
 - Eskualdean gizarteratze- eta laneratze-lanak egiten dituzten eragileek eta baliabideen koordinazioa eta lankidetzaren erraztea.
 - Proiektuak bultzatu eta garatzea sarearen artean lankidetzan, ekimen eta aldaketa zehatzak sortzeko helburu duen praktikara bideratutako espazio/tresna gisa.
 - Dagoeneko eskuragarri dauden baliabideen eta Sarean parte hartzen duten eragileek dagoeneko egiten dituzten jardueren eraginkortasuna, efizientzia eta koherentzia bultzatzea, pertsonak zentroan jarriz, ahalik eta zerbitzu pertsonalizatuena eta kalitate handienekoa eskaintzeko.

5. OSAERA ETA PARTE-HARTZAILEAK

ERAGILE PARTE-HARTZAILEAK

1. Sareko kide izan ahalko dira eskualdean egoitza iraunkorra edo jarraitua duten administrazio publikoak, enpresak, korporazio publikoak eta erakunde pribatuak, edota eskualdean aktibazio inklusiboarekin, sarbide arruntaren edo babestuaren sustapenarekin eta horretarako zailtasun handienak dituzten pertsonak bertan egotearekin lotutako edozein gaitan jarduten dutenak.
2. Eskualdean eragin zuzena duten eskualdez gaindiko eragileak, eskualdean egoitza iraunkorra/ jarraitua duen sarearentzat interesgarriak direnak.

ERAGILEEN TIPOLOGIA

1. Enplegu Zentro Bereziak eta Laneratzeko Enpresak.
2. LHko ikastetxeak: publikoak, pribatuak, itunduak.
3. Eskualdeko ikastetxeak.
4. Irabazi asmorik gabeko erakundeak. 3. sektoreko erakundeak.
5. Enpresa-elkarteak.
6. Udalak eta/edo Gizarte Zerbitzuak.
7. Lanbide.
8. Eskualdeko enpresak.
9. Eragile estrategikoak: adierazitako ezaugarriren bat bete ez arren, sarerako beharrezkoak eta/edo estrategikoak diren eragileak.

6. KONPROMISOAK

- Parte hartzen duten erakundeek sarean aktiboki parte hartzeko konpromisoa hartzen dute, haien bileretara eta/edo tailerretara joanez.
- Sarean parte hartzeak ez du inolako kontraprestazio ekonomikorik izango.
- Proiektuak eskualdean garatuko dira, eta eskualdean errotuta daudela egiaztatzen duten eskualdeko sareko erakundeekin ere bai.

7. ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

Kontsultatu 1. eranskina (Barne araudia)

8. ATXIKIPENAK ETA BAJAK

Atxikipen-eskaerak jendaurrean jakinaraziko dira, informazioaren gardentasuna eta irisgarritasuna bermatuko dituen tresna baten bidez, eta erakunde interesdun guztiek modu argi eta errazean jarduteko aukera izango dute.

Akordio honi atxikitzeko eta, hala badagokio, baja emateko eskabideak atxikipen-gutuna sinatuz formalizatuko dira (II. eranskina).

9. INDARRALDIA

Hitzarmen hau gutuna sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du sarea desegin arte edo, hala badagokio, hala eskatzen duen erakundea irten arte.